

ohartu nonbait euskaldunok «b», «p» bihurtzen dugunik. *In vitro*-ren kontuan ordea, plaentziarrak zionez, hainbeste «invito» eta «invito» eta geroago eta jaiotza gutiago.

Liburuko kontaerarik gehienak oso laburrak dira, batzu telegrafikoak; luzeena urte berean (1984) *Egan* aldizkari hontan agertu genuen «Samuel». Hori bai, guztiak atseginez irakurtzekoak.

J. S. M.

ETXABURU'TAR JOSE MARI (Kamiñazpi). *Ondarrabiako kondaira*. Euskerazaintza. 1986.

Liburu txukun argitaratua. Aspaldi idatzia (1974) sarrerkotik ikus daitekenez.

Kaminazpiren euskaltzaletasuna eta langiletasuna inork uka ezinezkoak dira, eta liburu honetan ere nabarmen erakusten dizkigu grina horiek.

Txomin Agirrek 1913an idatzi zuen «Ondarribi» poema erromantikoz ematen du hasiera. Eta Hondarribia geografikoki non kokatzen den adierazi ondotik mila zertzelada eta ohar bertako historiari loturik. Lehendik ezaguna zenetik haruntzago ez da joango historiaz, baina euskaraz jartzea bera ez da guti.

Hondarribiaren etimologiaz bere zalantzak ditu Jose Mari adiskideak. Gu ordea, Serapio Mujikak aspaldi esan zuenarekin gaude, geroago Florentino Portuk bere monografian zuri-tutzat eman zuen eritzi harekin. Hala agertu genuen *Egan*-en, 1985. urteko 5-6 zenbakiaren 152. orrialdean. Ez bai du beste munduko konplikaziorik. Behar bada, egilearen usteak ulerta-

razteko aski erakusten digu mundu guzian onartua den *metro* «neurkin» erabiltzeak. Baina, bakoitza, garan mondukoa gara.

«Juan Lazcano beltzarana...» delako bertsoa, 39. orrialdean datorrena, ez diogu zor Iztuetari. Hiru mende lehenago Bachiller Zaldibiak jaso zuen eta haren eskuizkribuetarik beste anitzek erabili ere bai. Ikus *Egan*, 1975. urtekoan, 26-27. orrialdeetan gure argibidea. Bestalde, «Auñamendi'ko pakea» ere Kontienda deritzaion inguru haietan ez zen egin; Bidasoan Auñamendirik ez denez. Auñamendi, propioki, Pirineoko gailur baten izena da, eta gailur hori Biarno partean datza, Zuberoa eta Nafarroako mugetatik hurbil, baina Euskal Herritik kanpora.

Gainerakoan, historia oso ongi jasotzen du eta ohiturak ere ederki bildu.

Hondarribiko baserrien zerrendak ongi daude estadistikaren aldetik, baina ez ordea izenen aldetik. Horren errudun, errudunik baldin bada, Franzisko Sagarzazu alkate zena izango zen baserri askori izena oker jartzean. XVIII. mendearen bukaeran Floridablanca-ren aginduz egin zen zensoan (kopia bada Udaletxean) beste era batera datoz izen horietarik asko, baina Diputazioak joan zen mendearen erdialdera argitaratu zuen *Nomenclátor de la Provincia de Guipúzcoa* ez begiratzearen kontuak dira horiek, eta lan hori aski ondo egina zenez, oraingo zerrenda zein gaizki egina denaren lekuko dugu. Egia esan, Iñaki Linazasorok ere ez zigun nahasmendua baizik ekarri baserri izenen kontuan *Caseríos de Guipúzcoa* liburuarekin. *H gabeko umorea* txantxetako da, baina ez den gauza leporatzeak ez dio inori alaitzen bere umorerik. Aski dugu agertzeaz 154. orrialdean datozen *Eliz-Azpi*, *Eliz-Berri* eta *Elizgaray*, Linazasoro eta Etxabururen lanetan hala azaltzen direnak, *Nomenclátor* hartan, zein Floridablanca-rentzako osatutako zerrendan, *Elias-azpi*, *Elias-berri* eta *Elias-garaikoa* direla.

Izkerari buruzkoan oso lan polita eskaintzen digu. Azken aldera, gizon ospetsuak eta abar, Hondarribiko kanta eta doinuz eraskina eta «Geigarria» azken urteotako berririk garrantzizkoenak eskainiz.

J. S. M.